

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

- HH3 -

Orereta-Erreterian, 2025eko urriaren 2an

1. AURKEZPENA

HH3A	Garazi Otamendi / Maitane Martin
HH3B	Nagore Uranga

2. hIZAN PROIEKTUA

Badira urte batzuk Orereta Ikastola haur hezkuntzaren inguruan hausnarketa egiten hasi zela eta, horren ondorioz, haur hezkuntzako proiektua berritu egin da Ikastolen Elkarteko markoan oinarrituta. hIZAN HH proiektua pertsonon ongizatea helburu duen proiektua dela esan dezakegu, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, lan egiteko moduak eta begiradak aldatzera datorrena.

Ez dugu zalantzarik, ongizateak testuinguru osasungarri baten beharra duela eta sistema hori familiek, Ikastola komunitateak, antolaketa arkitektonikoek, materialek eta batez ere, berdinekiko harremanek baldintzatuko dutela. Aldi berean, ongizate horren zutabe dira hezkuntza prozesuko esku-hartzeak, hala nola, haurraren senei sentikortasunez eta egoki erantzutea; bere gaitasunak identifikatu, balioetsi eta erantzutea; eta zailtasunak hautemanda horiek kudeatzen laguntzea.

hIZAN HH proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, bere gaitasunak garatuko dituen eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezkoetatik abiatuta dauden jardura eta ekintza autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira; eta guztiaren gainetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko du.

Konfiantza eta segurtasunezko testuinguruan, bertako helduengana hurbiltzeko zein atxikitzeko segurtasuna, ingurunea arakatzekoa, berdinkideekin harreman aberasgarriak izatekoa eta ikasteko aukera izango dute, bere gaitasunak garatzea ahalbidetuz. Egiteko eta ekiteko motibazioa eta ausardia konfiantzak ematen digula sinetsita, horixe da pedagogiaren oinarrian jarri duguna.

Laburbilduz, hIZAN HH proiektua, hezkuntza gaur egungo jendartearen beharretara egokitzeko eta berau hobetzeko asmotan martxan jarritako proiektua da, zeina egitearen ekinez eraikiko dugun.

3. EBALUAZIOA

HARMONIAN HAZTEN

Alderdi pertsonal eta sozialean oinarrituta, gorputzaren eta mugimenduaren garapena kontuan hartzea. Norberak dituen pentsamendu eta emozioak ezagutzea, bere ingurune eta besteekin izandako harremanei esker, norbanakoaren kontrola eta norbanakoaren nortasunaren eraikitzea garatuko dute hurrek eremu honetan.

INGURUNEA EZAGUTZEA ETA ESPLORATZEA

Hurrek, inguruneke osagai fisiko eta naturalak ezagutzea, behatzea eta esploratzea. Jasotako ikaskuntza egoerekin, haurrak ingurunea zaintzea, estimatzea, behatzea, errespetatzea eta babestea lortu nahi da.

KOMUNIKAZIOA ETA ERREALITATEAREN ADIERAZPENA

Hurrek dituzten bizipen, sentimendu... komunikatzen jakitea; baita beste egoeretan komunikazio egokia erabiltzea ere. Komunikazioak bizi garen mundua interpretatzeko eta irudikatzeke aukera ematen duenez, bizitako esperientziak zabalduz, haurraren sormenaren garapena handitzea da helburua.

4. ZERO UNITATEA

Konpetentzia emozionalen garapenaren bidez, ikasleek estrategia emozional desberdinak erabiltzen ikasten dute eskolan eta eskolatik kanpo; familian eta gizartean egoera emozional zailei aurre egiteko: enpatia, gatazken ebazpena, erregulazio emozionala... Emozioak eta estrategia emozionalak irakatsi eta ikasi egin daitezke.

Ikasturte hasieran, 0 unitatea landuko dugu orientazio departamentuarekin elkarlanean. Jolas kooperatiboak, ipuinak eta jarduera didaktikoak egingo ditugu haurren egoera sozial, emozional eta linguistikoa behatu eta lantzeko.

Bakarkako elkarriketetan emango zaizue familiei egindakoaren berri.

5. BASO-ESKOLA

Añabitarten dugun inguru paregabeari esker, baso-eskolan aritzeko aukera dugu. Hamabost egunean behin, autobusez, goiza gure basoan igarotzera joango gara. Baso eskola, naturan garatuko dugun gure hezkuntza proiektuaren zati bat gehiago da. Hurrek (HH3koen kasuan, Baserriaren inguruan) ingurune naturalean jolastuz, ikertu eta ikasten dute helduen behaketa eta laguntzarekin era libre eta ez gidatuan.

Baso-eskolak, haurren segurtasuna bermatzeko asmoz, Ekogunea eta agentzia meteorologikoen irizpideak jarraituko ditu beti. Honek esan nahi du, eguraldia dena delakoa izanik ere, baso-eskolako saioa egiten dela, egoera, erronka zein ikasketa ezberdin asko bizitzeko aukera ematen digulako. Esan ohi baita “ez dagoela eguraldi txarrik, arropa desegokia baizik”. Alarma, alerta edo arrisku meteorologikoen aurrean beti bertan behera

7. EUSKARA

Orereta Ikastolako sorrera-helburuak euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta ikasleen aitzindaritza suspertuz dinamika desberdinak jarri genituen indarrean. Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak, adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

8. ZUBIAK ERAIKIZ

2016an sinatu genuen Zubiak Eraikiz hitzarmena Ipar Euskal Herriko lau ikastolarekin. 2024ko ekainean zortzi Ikastolak berritu genuen: Hendaiako Gure Ikastolak, Ziburuko Kaskaroteneak eta Piarres Larzabal kolegioak, Biriaturko Ikastolak, Berako Labiaga Ikastolak, Lesakako Tantirumairuk, Elizondoko Baztan Ikastolak eta Orereta-Oiartzo Ikastolak.

Hitzarmenaren helburua

Lurralde administratibo ezberdinetan kokatuta egonik, zubi bat eraikitzea elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroako eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.

9. IKASTURTEAREN ANTOLAKETA

9.1. Eskola ordutegia

Goizez	09:00/09:30 (sarrera malgua) - 12:15
Arratsaldez	14:45/15:00 (sarrera malgua) - 16:30

Ikastolara gogoz eta lasai etortzeko, aproposena eguneroko errutinei eta harremanei giro eta denbora egokia eskaintzea da: esnatzeko, gosaltzeko, janzteko eta garbitzeko denbora... Goizeko ordutegi malguak hori guztia ahalbidetzea du helburu.

9.2. Kontaktua

Tutorearekin telefonoz harremanetan jartzeko, aurretik hitzordua adostea komenigarria da. Deitzeko ordu egokiena: 8:45 - 9:00. (Tel.: 943 52 03 97 | Luzapena: 236)

9.3. Bilerak

Orokorrak: ikasturte hasieran eta bukaeran. Bakarkakoak: azaroan eta ekainean.

9.4. Psikomotrizitate saioak

- HH3A (Garazi Otamendi / Maitane Martin), astelehen goizetan.
- HH3B (Nagore Uranga), astelehen arratsaldetan.

9.5. Ekintza osagarriak

Jai eta ospakizunak	Irteerak
- Gau Beltza - Azaroak 25: Emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako eguna - Euskararen Eguna - Mari Domingiren Errepublikara bisita - San Tomas - Gabon koplak - Santa Ageda - Inauteriak - MoreretaON - Korrika - Ikastolaren Eguna	- Eskolatik antzokira (goiza) - Baserrira bisita (goiza) - Ikasturte amaierako irteera (egun osorako)

10. ORERETA IKASTOLAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

- Maddalen Iriondo (HH eta LH)
- Ane Igarzabal (DBH)
- Ainhoa Gaztelumendi (Batxilergoa)

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALITATEA DUTEN IRAKASLEAK

- Ainhoa Gaztelumendi-Ander Aguilera (HH-LH)
- Maialen Gurrutxaga (LH)
- Ane Beltran (LH)
- Amaia Olaso (DBH)

HEZIKETA LAGUNTZAILE ESPEZIALISTAK

- Ani Bengoetxea (HH)
- Maite Inziarte (HH)
- Aitor Franco (HH-LH)
- Oihana Latasa (LH)
- Uxue Louvelli (HH-DBH)

ORIENTAZIO DEPARTAMETUAREN HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburua du ikasleei oinarritzko konpetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.


Hau dela-eta, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesutan gauzatzen da, gehien bat:

Tutoretza eta orientazioa

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, gela barruan zein kanpoan landuko dena, eta ikasleei beren garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarritzko konpetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



11. GURASO BATZORDEA

ZER DA GURASO BATZORDEA?

Familien ikuspuntua eta iradokizunak helarazteko Ikastolak duen organoa da, seme-alaben hezkuntza prozesu guztian parte hartzeko aukera ematen duena.

Ikastolako partaide eta profesionalekin komunikazio **zuzena** eta **azkarra** izateko (zuzendaritza, zerbitzuak, irakasleak, beste gurasoak...). **EZ** du komunikazio ofiziala ordezkatzen.

NORK OSATZEN DUTE?

HH etapako ikasleen gurasoek.

- Gela bakoitzean gutxienez ordezkari bat.
- Guraso taldea sortzen bada, HOBE, bileretara txandaka joatea eta informazioa zabaltzea errazten du eta. Ordezkari bat baino gehiago dauden geletan elkarlana erraztu egiten da.
- OSO GARRANTZITSUA da gela bakoitzak guraso ordezkariak izatea.

ZENBATERO IZATEN DIRA BILERAK?

Hilabetean behin, 17:30ean Linoko egoitzan.

- Normalean, hilabeteko 3. astelehenean izaten da.
- Bi helburu:
 - Ikastolatik datorren informazioa jasotzea (Artezkarietatik eta Hezkuntza Batzordetik)
 - Gurasoen eskaera eta iradokizunak Ikastolara helaraztea

GAIK

- Eguneroko kezken bideratzea
- Ordutegiak eta egutegia adostea
- Ikastolak antolatzen dituen jaialdi eta festa egunetarako familien inplikazioa sustatzea

- Ikastolaren proiektuen jarraipena (pedagogia berria, baso-eskola...) egitea eta proposatzen diren ekintzez hausnartzea

12. FAMILIA LAGUNA

Herriko ikastetxeetan aurrera eramaten ari garen egitasmo baten berri eman nahi dizuegu. Kulturartekotasuna lantzeko programa honek “Familia Laguna” du izena eta ondorengo helburuak ditu: ikastetxeko familien arteko kulturarteko harremanak sustatzea, ikastetxean izena ematen duten atzerriko familien akonpainamendua; eta euskararen sustapena, bai ikastetxean baita herri mailan ere.

“Familia Laguna” programan, familia euskaldunek beste herrialde edo erkidego batetik datozen familiei borondatezko akonpainamendua ematen diete. “Familia lagun” hauen eginkizun nagusia etorri berri diren familiei ikastetxeko funtzionamenduaren eta herriko baliabideen berri ematea, ikastetxeko guraso gehiago aurkeztea, eta euskal kultura eta euskararekiko sustapena aurrera eramatea da.

Programa hau Aitor Ikastolan jarri zen martxan 2015. urtean, oso emaitza onak lortuz. Gero, Gipuzkoako beste 10 eskola gehitu ziren programara. Bertako familiek eta beste jatorri batzuetako familiek ongi baloratu dute programa. Iritsi berri diren familientzat oso lagungarria izan da bertako familia baten laguntza, bai auzoko edota herriko harremanak irekitzeko, bai eskolaren eta udalerriaren funtzionamenduaren berri izateko. Seme- alabek eta gurasoek beraiek ere hobetu dute euskararekiko motibazioa eta ikasketa.

Programa aurrera eramateko zuen kolaborazioa beharrezkoa da. “Familia laguna” izateko zuen izena eman dezakezue: beste kultura batzuk ezagutzeko, beste jatorri bateko familietan euskararen sustatzea bultzatzeko, bi kulturen arteko zubi lana egiteko eta beste jatorri bateko familien egokitzapena, bai ikastetxe mailan bai herri mailan, xamurragoa egiteko.

Aipatu, programak ikasturte bateko iraupena izaten duela: irailean hasi eta ekainean amaitzen da.

Informazio gehiago: errenteria.ongietorrieskolara@gmail.com

13. ERANSKINAK

13.1. Urtebetetzeak

Ikasleek beren urtebetetze egunean lagunei banatzeko zerbait ekartzekotan, guztiok elkarrekin jateko moduko zerbait izango da: bizkotxoa, patata-tortilla edota antzekoren bat. Horrela, egun horretako hamaiketakoa urtebetetzea ospatzen duenak ekarritakoarekin beteko genuke.

Proposamena hori izateko arrazoi ezberdinak ditugu:

- Ikasleen osasuna: litxarrerria ugari jatea ez baita komeni.

- Bereizkeriak baztertzea: gelan guztiok gure urtebetetzea era berean ospatzea bermatzea.
- Jarrera kontsumistak baztertzea: ospakizunari garrantzia emanez eta ez ikasleak ekartzen duenari.
- Hondakin gutxiago sortzea: proposatzen ditugun bideek oso zabor gutxi sortzen dute.

Hau guztia dela eta, hemendik aurrera, zuen seme-alaben urtebetetzeak proposatutako moduan ospatuko ditugulakoan, gozokirik ez ekartzeko eskatuko dizuegu. Guztion onerako dela uste dugu.

13.2. Gaixotasunak

Haurra gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak behar ditu; Ikastolak eskaintzen ez dituen arreta eta baldintzak, alegia. Gaixoaldian Ikastolara etortzeak, beste haurrak kutsatzeko arriskuaz gain, bakoitzaren sendatze prozesua atzeratzen du.

Ikastola infekzio-fokua izan ez dadin, haurrak ez dira Ikastolara ekarri behar ondorengo sintomak izanez gero:

- Goizean ondoeza, mina edo sukarra.
- Beherakoa.
- Oka egitea, ezohiko moduan.
- Eritasun eta gaixotasun kutsakorrak (konjuntibitisa, eskarlatina, onddoak, barizela, inpetigoa...).
- Eztarriko edo belarriko infekzioa.
- Antibiotikoekin tratamenduan daudenean, eta 24 ordu pasa ez direnean tratamenduekin hasi zirenetik.

Haurrak, gutxienez, 24 ordu pasa behar ditu sukarrik gabe Ikastolara itzuli aurretik.

Haurrak botika edo substantziaren bati alergia izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ikastolari.

Gurasoek botikak Ikastolako ordutegitik kanpo ematen saiatu behar dute. Ikastolan eman behar izanez gero, ordutegia eta dosia zehazten dituen pediatriaren txostena eskatuko da.

Haurrak ohikoa ez den zerbait duenean, familiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote Ikastolari.

Era berean, haurren bat Ikastolan ondo ezik balego, berehala jakinaraziko zaie gurasoei edo premiazko kasuetarako adierazitako pertsonari, haurra jasotzera Ikastolara etor daitezen.

13.3. Zorriak



Eskola garaia iristearekin batera haurren artean zorri infekzioak berragertu ohi dira, kasurik gehienetan haurrek higie-ne neurri egokia izan arren. Zorriak bere ostalariaren erabateko dependentzia du, bai elikatzeko, bai bizitzeko. Erraztasun handia dute pertsona batengandik beste batengana pasatzeko, ukipen txikiena aski izan daiteke. Zorri edo bartzek kutsaturiko arropa, orrazi, kapela edo edozein objektu erabiltzea aski izan daiteke kutsatzeko.

Garai batean zorri kutsadura higie-ne eskaseko biztanleriaren artean sortzen bazen ere, zorriek nahiago dute azal garbian bizi, eta ondorioz, arrunta da higie-ne neurri egokiak dituztenek ere zorriak izatea.

Ongi garbitutako buruetannekez agertu ohi dira gorputz-zorriak. Ohikoena burukoak dira, eta bereziki 6-10 urte bitarteko haurretan azaltzen dira.

Nagusiki, gizakiok izan ohi ditugun zorriak bi dira: gorputzekoak eta burukoak. Burukoak gehienetan atzealdean agertzen dira, eta nahiago dituzte luzera ertaineko ileak, ez luzeak ez motzak. Gorputzekoak, berriz, torax edota besapeko ile artean ibiltzen dira, baita arropa ehunen zuntz artean ere.

Zorriak ziztatzean injektatutako txistuak azaleko hipersentiberatasuna sortzen du; ondorioz, handitu egiten da eta azkura eragiten du. Azkura dela eta, hazka egiten dugu eta gehiago handitzen da, eta, beraz, bakterio infekzioak errazten ditu. Negal, zarakar edota zorne-jarioa ere ager daitezke.

Badira zenbait gai zorriak akabatzeko egokiak. Ez dira kosmetikoak, benetako bioazidoak baizik, eta arrazoi horregatik erabilera arauak zorrotz errespetatu behar dira. Tratamendua egin ondoren bartz eta hildako zorriak kontu handiz kendu behar dira, honetarako bereziak diren hortz estudun orraziak erabiliz.

Kutsatuta dagoen ingurukoen buruak ere miatu behar dira: ikaskideak, senideak... Ikastolari horren berri ematea ezinbestekoa da. Arropak ur berotan garbitu behar dira eta, aukera izanda, lehortu ere bai. Orrazi eta gainerako tresnak ordu-erdiz beratzen eduki behar dira intsektizida disoluziotan.